



Asteburuan, II. Zerbeza Festa izango da Alegian

BIHARTIK ▶ Bihar 19:00etan hasi eta igandera bitarte luzatuko da herriko pilotalekuan garagardo jai

ANTOLAKETA ▶ Intxurre futbol taldea da antolatzailea; igandean herri bazkaria izango da ▶ 5



Kanpai kontzertu berezia izaten da jaiero Belauntzan

BELAUNTZA ▶ Beste herri batzuetan galdu den ohitura mantentzen dute Belauntzan: elizako kanpaiak igandero eta jaiero jotzearena. Jose Fermin Garmendia belauntzarra aritzen da horretan, aitari ikasita. San Joan Bataiatzailearen elizako kanpan-dorrean dauden hiru kanpaiak astintzen ditu 11:30ean, minutu

bateko kontzertu berezia zabalduz inguruko herrietara. Hileta elizkizunetan ere jotzen du, hildakoa gizona, emakumea edo aingerua —bataiatu gabeko haurra— den doinuarekin bereiztuz. Kanpaiak ez dute garai batean suteez abisatzeko zuten funtzioa betetzen, bai ordea elizkizunetara deitzeko. JOXEMI SAIZAR ▶ 2

TOLOSA ▶

Hirukide, euskararen erabilera bultzatuz

Euskal Jardunaldiak egin dituzte maila guztietako ikasleek ▶ 3

LEITZA ▶



J.ASTIBIA

Asketa Ttiki abesbatza Kataluniara doa gaur

Els Verdums-i bisita itzuliko dio; etzi abestuko dute ▶ 7

IBARRA ▶

Duela hiru urte atxilotu zituztenak hizpide dira

Aramendi eta Ijurko martxoaren 25ean atzeman zituzten ▶ 6

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Jaieroko kanpai kontzertua

Familiaren tradizioa jarraitzen du
Jose Fermin Garmendiak

JOXEMI SAIZAR

Kanpai kontzertu berezia entzun daiteke igandero eta jaiero Belauntza inguruan. Bertako San Joan Bataiatzailearen elizako kanpaiak joz egiten dute. 11:30ean izaten da, mezetara deitzeko, eta minutu inguru irauten du. Herri gehienetan lan hau automatizatuta dagoen garai hauetan, berezia da kasu hau. Entzungarria eta ikusgarria.

Bi kanpai handi eta beste bat txikiago astinduz aritzen da denbora labur horretan Jose Fermin Garmendia belauntzarrak. Eskuak ez ezik, hankak ere erabili behar izaten ditu lanterri horretan. Horretarako soka sistema bat du antolatuta elizako kanpandorrean. Tilin-talan, don-dan... A ze kanpai eta ezkil festa!

Igande eta jaiez gain, hileta elizkizunetan —gaur bertan

izango da bat— ere jotzen ditu kanpaiak Belauntzan. Hildakoa gizona, emakume edo aingeru —bataiatu gabeko haurra— izan, kanpai desberdinak —eta doinu desberdinak, beraz— erabiltzen dituela azaltzen du Garmendiak. Don izeneko kanpaia gizonekoentzat erabiltzen du eta dan emakumeentzat. Aingeruentzat berriz, ezkil txikiagoa. Agonia doinua izaten da, motelagoa, kolpe batek bestera tarte handiagoak eginez. San Joan bezperan, suaren garaian, ere saio luzeagoa egiten dute. Garai batean suteez abisatzeko zerbitzua ere egiten zuten kanpaiak.

Kanpaien ardura izan aurretik, erlojuari soka emateko kate poleak igotzen zituen Garmendiak. Erlojua elektrifikatu zenean bukatu ziren zeregin horiek. Igandero eta jaiero kanpaiei musika ateratzen badu nahiko lan.

JOSE FERMIN GARMENDIA ▶ KANPAIJOLEA

«Aitari begira eta arituz ikasi genuen kanpaiak jotzen»

Kanpai kontzertu saioaren ondoren, HITZAREKIN aritu da Jose Fermin Garmendia, argibide batzuk ematen, kanpandorrean bertan.

Noiz eta nola hasi zinen honetan?

Aitak erakutsi zigun, hari begira eta arituz ikasi genuen. 1980ean hil zen eta aurretik hasita geunden laguntzen. Nik ezin dudanean Juan Mari edo Miguel anaiek egiten dute nire ordez. San Jose ermitan berriz, Tomas Iturbe aritzen da.

Zeregin lotua al da?

Bai, minutu batekoa, baina bertan egon beharrekoa.

Jendeak zerbait esaten al dizu?

Bai, tarteka, astindu ederra eman diodala eta horrelakoak.

Urrutitik entzuten al dute?



J.SAIZAR

Eguraldiaren arabera, lehorra bada Uzturre, Leaburu, Ibarra eta inguruetatik entzun daiteke. Hezea denean motelagoa da soina, indar handiagoa egin behar izaten da. ◀



Kanpai festa. Minutu batez tilin-talan, don-dan soinuak entzun daitezke Belauntzako kanpandorretik. Jose Fermin Garmendia belauntzarrak han ibiltzen da soka bati eta besteeari tiraka, aitari ikasitako doinuak jotzen, beste herrietan galdutako ohitura mantentzen. JOXEMI SAIZAR



Kanpandorra. Belauntzako San Joan Bataiatzailearen kanpandorra. Bertan dauden kanpaiak jotzen dituzte igandero, jaiero, hiletak direnean... J.SAIZAR



Hankak. Eskuak ezezik, hankak ere erabili behar izaten dira kanpandorrean dauden kanpai guztiak jotzera iristeko. Soka sistema du prestatuta lan hori errazteko. J.SAIZAR



Urrutiraino. Inguruko herri eta leku askotan entzuten dute kanpai kontzertu hau: Uzturre, Leaburu, Ibarra... Eguraldi lehorra bada, hobeto transmititzen da soina. Hezea bada, soina motelagoa izaten da eta indar handiagoa egin behar da sokei tiraka. J.SAIZAR

HEZKUNTZA ▶



Ion Garmendia musikari ibartarrak euskal musika tresnen inguruko azalpenak eman zizkien ikasleei. HITZA

Euskara bultzatu nahi izan dute, batik bat, Hirukide Kulturalarekin

«Olerkigintza, narrazioa, deklamazioa eta abestiak» landu dituzte, bereziki, hiruhilabete honetan, euskal giro ederrean

IRATXE ETXEBESTE

Hirukide ikastetxeak buru-belarri jarraitzen dute Hirukide Kulturala deitzen dioten ekimenarekin, eta hiruhilabete honetan, bereziki, olerkigintza, narrazioa, deklamazioa eta abestiak landu dituztela adierazi dute ikastetxe arduradunek. «batik bat Uxola eta Barriola lehiaketarako lanak prestatzeko eta irriti saioak grabatzeko». Bada ekitaldi horiei guztiei bukaera emateko Euskal Jardunaldiak egin dituzte azken hiru asteetan, eta, martxoaren 4an bertso afaria egin zuten irakasle eta gurasoek Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidirekin.

Haur Eskola Kulturalaren baitan, 2 urteko haurrek ikasitako abestiak kantatu zizkieten 3 urtekoek; «gurasoek euskararekiko eduki behar duten jarraera motibatzailea bultzatzeko» hainbat aholku zituen propaganda bidali zitzaizen etxeetara, eta irakasleek haur abestien, dantzen eta jolasen ikastaroa egin zuten Urtxintxa eskolaren eskutik.

Haur Hezkuntzan, Nerea Herrarte ipuin kontalariak jardun zuen 3 eta 5 urte artekoek ipuin kontatzen, jolaslekuan euskal jolasak izan zituzten, eta 5 urtekoek Kultur Etxeko liburuetan ikustera irteteko aukera izan zuten egun batean, eta ipuin

marraskilariari aditzekoa, bestean.

Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoekin pentsatuta, berriz, ekimen berezia antolatu zuten irakasleek: «Euskararen erabilerrari bultzada emateko, maskota bat aurkeztu genien ikasleei; gela bakoitzean bere irudia jarri, eta istorio bat kontatu genien. Asteazkenean maskotaren mezuak jaso zituzten ikasleek, ondo ari ziren edota laguntza behar zuten esanez». Askotarikoak izan ziren helburu horrekin antolatutako ekimenak: ipuinak landu eta antzezlanak egin, euskal ohiturez ohartarazi, «gure sustraiez eta euskararen balioaz ohartarazteko» bideoa jarri... Horrekin batera, euskal abestiei eman diete garrantzia ikastetxeak, kantutegi moduko bat sortuz. Soinketako saioetan euskal kirolak ezagutu ahal izan zituzten ikasleek, eta Realeko jokalarari Gari Uranga eta Mikel Alonsoren bisita izan zuten egun batean.

Lehen Hezkuntzako 2. ziklokoek musika hartu zuten ildo nagusi gisa. Kirmen Uribe idatzitako olerkia landu, eta musika tresnaren bat jotzen duten ikasleekin emanaldia egin zuten. Horrekin lotuta, Ion Garmendia musikari ibartarrak euskal musikari buruzko azalpenak eman zizkien ikasleei, hark jotzen dituen musika tresnak erakutsiz.

Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoek ipuin, olerki eta deklamazio saioak grabatu eta irriti emanaldietarako prestatu zituzten; ikasle batzordeak antolatutako jolas-tailerretan parte hartu zuten eta Kirmen Uriberen *Mundua begiratzeko* olerkia landu zuten, besteak beste.

Korrikaren alde ere bai

Haur Eskolako eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin ekimen bereziak prestatu zituzten, bestalde, Korrika 14ren harira: abestia ikasi, ziklo bakoitzak aukeratutako unitate didaktikoak, petoak eta pankartak prestatu ostean, korrikaldia bukatzean, festa egin zuten Jesuitinetan. Martxoaren 15ean Korrika Txikiko parte-hartzairekin eman zuten amaitutzat Hirukide Kulturala.

DBH eta Batxilergoko ikasle batzordekoak aritu ziren lanean hori guztia ondo atera zedin. Haiek ere hartu dute parte Hirukide Kulturalan: *Goenkale*-ko *Tximista* eta *Maialen* aktoreen bisita izan zuten DBHko 3. mailakoek, eta 1. eta 2. koek *Betizu* saioko Elene eta Albarena. Ttakun taldeak, azkenik, «motibazio saioak» burutu zituzten ikastetxean, «DBHko eta Batxilergoko ikasleek, batez ere kaleko hizkuntzan, euskararen erabilera areagotu dezaten».

AHT ▶

Elkarlanak deia egin du etziko manifestaziora

AHT Gelditu! Elkarlanak deia egin du larunbatean, apirilak 2. *Ibarretxe: inposaketarik ez! AHT gelditu! Herriari entzun!* lelopean 18:00etan Ordiziako plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko. Era berean, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanekoek hitzordua egin dute Ordiziara elkarrekin trenez joateko. 17:15ak inguruan irtengo den tren hartzeko adierazi diete herritarrei. «mobilitatzea urjentsiazkoa delako Ibarretxeren gobernua AHTren lanak hasteko hartu duen erabaki onartezina atzera botatzeko».

NEKAZARITZA ▶

Babarrun ekoizleentzako diru laguntzak

Tolosako Babarrunaren produkzioan aritzen direnek diru laguntzak eskatzeko aukera dute egunotan Tolosaldeko Babarrunaren Elkartean. Martxoaren erdialdean jarri zuen elkarrekin horrek kide berriak bilatzeko kanpaina abian, «durra baduzu eta ez dakizu zer egin? Zure baserrirako alternatiba baten bila zabilta? Babarrun ekoizle zara edo izan nahi duzu?», esanez. Apirilaren 15ean bukatzen da diru laguntzak eskatzeko epea, eta Tolosaldeko Babarrunaren elkartean jasoko dute interesatuek informazio gehiago: 943 65 02 53.

EUSKARA ▶

Euskarazko web guneak osatzeko diru laguntzak

Kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza, eta, orohar, publiko zabalari interesgarri gerta dakioken informazioa eta edukia informazio teknologien bidez eta euskaraz hedatzeko proiektuentzat diru laguntzak emateko asmoa du Udalak. Ekainaren 30ean bukatzen da eskaerak aurkezteko epea, Udaleko Euskara eta Hezkuntza departamentuan. «Hiru mila euro banatuko dira oraingoz», adierazi dute udal arduradunek.

GAZTERIA ▶

Tailer bereziak egiteko aukera izango da gaur Topagunean

Biarritzeko karts-etara joango dira gaztetxoak bihar; 14:30ean irtengo dute San Frantziskotik

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria saileko arduradunek ahalegin berezia egin nahi izan dute Aste Santuko oporraldian 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek ondo pasatzeko aukera izan dezaten, eta askotariko ekitaldiak antolatu dituzte egunotarako. Joan den ostegunetik gaur arte, Aste Santuko jai-egunetan, itxita izan dute gaztetxoek Kultur Etxea, baina gaurtik igandera bitarte ekintza bereziak egin ahal izango dituzte.

Gaur, esaterako, tailer bereziak egiteko aukera izango dute Topagunera hurbiltzen direnek. Antolatzaileek diote bitxi ugari egiteko materiala prestatu dutela, eta kamiseta pertsonalak, brotxeak eta antzerakoak egin nahi izatera Kultur Etxera agertu beharko dutela gaztetxoek 16:30etik 20:30erako bitarte horretan. Eskulan tailer berezi horretan parte hartu nahi dutenek euro bana ordaindu beharko dutela iragarri dute Topaguneko hezitzaileek.

Bestalde, Biarritzeko karts-etara irteera antolatu dute Topagunekoek biharko. Bertara joan ahal izateko ezinbestekoa da gutxenez 14 urte izatea eta 7 euro ordaintzea. Ekimen horretarako izen-emate epea bukatuta dago, eta gogoratu, bertara joatekotan direnek, San Frantzisko elizaren parean dagoen autobus geltokira agertu beharko dutela bihar 14:30erako, ordu horretan abiatuko baita Biarritzera eramango dituen autobusa.

Larunbatean, apirilak 2, Play Station joko erraldoian parte hartzeko aukera izango dute, bestalde, gaztetxoek. 16:30ean hasi eta 20:30ak bitarte, Kultur Etxean bilduko dira jolas egiteko. Eta igandean, apirilak 3, beste tailer batean aritzeko aukera eskainiko dute Topaguneko hezitzaileek: sukaldaritza. 16:30etik 20:30era izango da tailer hori ere, eta beste guztietan bezala, euro bat ordaindu beharko dute bertan parte hartzeko asmoa dutenek. Sukaldaritza tailerrek emango die bukaera Pazko asteko Topaguneko ekitaldi bereziei.

VILLABONA ▶ KULTURA

Ikuslegoak amaiera erabakitzen duen antzezlana Gurean

Kanpingags taldeak ekoiztutako 'Ezetz lepoa jarri' ikuskizuna bihar izango da ikusgai 22:30etik aurrera



Antzezlanean aktore ezagunek parte hartzen dute. HITZA

IMANOL GARCIA

Kanpingags taldeak ekoizturiko antzezlana ikusi, entzun eta erabaki ahal izango du bihar Gurea antzokira azaltzen den ikuslegoak. 22:30ean hasiko da *Ezetz lepoa jarri* antzerki obra berezia, ikuslegoaren arabera aldatzen doana, emaldi bakoitzeko bukaera ezberdina izanez.

Oso ezagunak diren aktoreek egiten dute lan obra honetan. Paul Portner idazle eta psikologoak sortutako *Shear Madness* testuan oinarritutako bertsioa da Kanpingags-ek taularatutako duena.

«Ez ohiko lana da antzerkiaren historian», azaltzen du Pere

Planella zuzendariak. Izan ere, publikoa ikuskizunaren partaide bilakatzen delako momentu batean, beraiek emandako iriztzen arabera datorrelako antzezlaren amaiera, eta, ondorioz, hilketaren erreduna.

Hilketa argitu behar

Hain zuzen, hilketa bat da antzezlaren ardatza. Ileapaindegi batean burutzen da istoria, bi bezero, bi ileapantzaile eta komisarioa eta bere laguntzailea ditu protagonista eta guztiak izan daitezke ileapaindegiaren gaineko pisuan gertatutako hilketa baten erreduna.

Polizi agenteak gertakariak

berregiten ahaleginduko dira lau susmagarrien itaunketari ekiten dioten bitartean, hiltzailea nor izan den eta eragingarria zein izan den argitu behar dutelako. Antzezlana gune itxi eta mugatua garatzen da une horretarako, horrelako ikuskitzunean gertatzen den bezala, ohiko topikoak azalduz: txantxia, litezkeen eragingarriak eta susmagarrien arteko maitasun harremanak, besteak beste.

Istoria bere horretan dagoela, ikuslegoaren parte-hartzea hasten da. Komisarioa ikusleei zuzentzen zaie eta nahi dituzten zalantzak eta galderak egiteko gonbita egiten die. Argitasun guztiak jaso on-

HILKETA

Ileapaindegi baten gaineko pisuan gertatutako hilketa baten erruduna bilatzea da istorioaren ardatza

SEI AMAIERA POSIBLE

Ikuslegoak emandako bozketaren ondorioz antzezle adina amaiera posible ditu antzezlanean

FITXA TEKNIKOA ▶

Egilea. Paul Portner.

Egokipena. Carlos Zabala.

Zuzendaritza. Pere Planella.

Zuzendaritza laguntzailea.

Jokin Oregi.

Aktoreak. Jose Ramon Sorroiz, Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ainhoa Aierbe eta Kiko Jauregi.

Musika. Juan Zulaika.

Ekoizpena. Kanpingags S.L.

doren, ikuslegoak bozkatu egiten du bere ustetan hiltzailea zein den azalduz. Antzezlana bukatzeko bere baitan itxiko da berriro emanaldia.

Horrela, ikuslegoak emandako bozketaren ondorioz, antzezle beste amaiera posible ditu antzezlanean, sei guztira. Planella zuzendariak azaltzen duenez, «ikuskitzunaren erakargarritasuna emanaldiaren bukaera inork ez jakitean datza». Arrazoi horregatik «ikuslegoak behin baino gehiagotan ikus dezake antzezlana, saio bakoitzean errudana desberdina izan daitekeelako eta hori erabakigarria delako ikusleentzat», dio zuzendariak.

Aldez aurretik sarrerak erosteko aukera izango da Gurea aretoko leihatilan. Gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar 18:00etan hasi eta Kanpingags taldearen *Ezetz lepoa jarri* antzezlaren emanaldia hasi bitartean.

VILLABONA ▶

Bi saio antolatu ditu Guraso Elkaratek datorren astean

I. GARCIA

Fleming ikastetxeko Guraso Elkaratek bi saio antolatu ditu datozen egunetako. Apirilaren 4an, astelehena, Mari-bel San Sebastian psikologoaren hitzaldia izango da. Gurasoen errudutasun sentimenduaren inguruko azken saio aizango da. 18:00etan izango da Arroako eskolan.

Bestalde, Bittor Ormaetxea pediatraren hitzaldi mahai-ingurua izango da apirilaren 6an. Gurea aretoan izango da, 14:30etik 16:00etara. Besteak beste, haurren gaitasunak, elikadura eta garbitasunaren oihiturak, umearen autonomia, arretaren zailtasunak eta hiperaktibitate jorratuko ditu Ernio-bea osasun zentroko pediatra. Bestalde gurasoek bertan proposatutako gaiei buruz aritzeko aukera izango da Guraso Eskolan.

ADUNA ▶

Udalak herriko errepide zatiaren titularitatea du

I. GARCIA

Gipuzkoako Diputatuaren Kontseiluak onartu egin du GI-3610 errepidearen Adunak herri barruko zatiaren titularitatea herriko Udalari eskualdatzea. Eskualdatzeak gutxi gorabehera 200 metroko zati bat hartzen du, 1.833 eta 2.040 puntu kilometrikoen artekoa. Metro horietan plaza, ikastola, pilotalekua eta Adunak udaletxea daude.

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldekoko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAREN egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

ALEGIA ▶ KULTURA



Aurtengoa bigarren edizioa izango da eta iaizko arrakasta lortzea espero dute antolatzaileek. HITZA

II. Zerbeza Festaren lehen aparrak bihar

19:00etan hasiko da Alegiako frontoian; igandean herri bazkaria antolatu dute, saltxitxa, paella eta postrearekin

NOELIA LATABURU

Ordu gutxi barru emango diote hasiera Alegian II. Zerbeza Festari. Bihar, 19:00etatik aurrera, eta 01:00etara bitartean, herriko frontoiak bere atek irekiko ditu zerbezaren festa jasotzeko. Larunbatean ere ordutegi berbera mantenduko dute, eta 19:00etan irekiko dituzte garagardo kupelak. Bi egun hauetan bertan aflatzeko aukera ere izango dute bertaratuek, menua ukondoa eta saltxitxak osatua egongo delarik. Eta, ga-

ragardo festa on batean falta ezin daitekeen bezalaxe, hamar zerbeza mota ezberdin izango dira nahi adina aukeran dastatzeko. Txartelak egunean bertan erosi ahalko dira, edan behar denaren arabera.

Igande eguerdian, berri, bereziki herritarrentzat bazkaria antolatu dute herriko frontoian, jende guztiarentzat irekia egongo den arren. Bertara azaltzeko txartelak salgai dau-de dagoeneko, herriko Jubilatu, Ixkiña, Hilario Berri eta Etxeberria tabernetan, 7 euro-

ko salneurrian. Bazkari berezi honetan saltxitxak, paella eta gazta izango dira menuan nagusi eta, batez ere, aurreko egunetan barriketan soberan geratu den garagardoa edan-go ahalko da.

Lanean bildutako dirua In-txurre futbol taldearentzat bideratuko da eta talde ezberdinetako jokalarik hauek izango dira hiru egun hauetan zehar barra atzean lanean ariko direnak, gurasoen eta euren laguntza luzatu nahi duten guztiekin batera.

ARTZAIN EGUNA ▶

Sariak eskualdera, Ordiziako Artzai Egunean

Amezketako Tolosa eta Abaltzisketako Ipintza eta Amenabarro izan ziren irabazleak atzokoan



Artaldea atzo Ordiziako kaleetan barrena. MAIDER DEL OLMO/GOIERRIKO HITZA

N. LATABURU

Eskualdeko artzaiak ez ziren esku hutsik geratu Ordiziako Artzai Egunean antolatu ziren lehiaketetatik eta sari mordoak ekarri zuten etxera bueltan. Mendiko Artzantza Lan Taldeak hogeitalau artzai aurkeztu zituen, bakoitzak hiru ahari zituelarik.

Mutur gorrien sailean, hiru sari banatu ziren: lehenik eta behin, arkume ahariena. Atal honetan irabazlea Julian Beloki beizamarra izan zen eta Jose Antonio Tolosa amezketarra izan zen bigarren. Bildots ahariena izan zen bigarren atala. Abaltzisketako Joakin Maria Ipintzak irabazi zuen saria. Sail honetan azken saria ahari zaharrei egokitu

zitzaien eta, honetan, bi abaltzisketar suertatu ziren irabazle, lehen postuan Mari Jose Amenabarro eta bigarrenean berriro Joakin Mari Ipintza izan zirelarik.

Mutur beltzetan ere hiru sari eman zituzten, baina honetan sari guztiak Idiazabalentzat aukerarik utzi gabe. Luis Katarainek arkume aharietan eta zaharretan irabazi zuen lehen saria eta Juan Irastorza, berriz, bildots ahariena. Lehiaketarekin batera, artaldeek Ordiziako kaleak zeharkatu zituzten.

Atzokoa urteko lehen azoka berezia izan zen; aurten gainera Gaztaren Europako Biltzarren ataria izan da Artzai Eguna eta Idiazabalgo gaztaren kanpainari agurra eman-got diona.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Erdialdean, plaza inguruan. 3 logela eta 2 bainu. 33.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Azpeitia. Erdialdean. Bizitzera sartzeko. 90 m2-koa, 1, 2 eta 3 logela. Balkoia. 28.000.000 pta.
Berastegi. 70.000m2-ko lurra eta borda. 27.000.000 pta.
Berrobi. 65 m2-ko etxebizitza. 2 logela, zoragarria, eguzkitsua, 2 balkoi, al-

tzariz hornitua. Sartzeko prest. 33.000.000 pta.
Belautza. Bi familientzako etxebizitza, garaje, terraza eta terrenearekin.
Caparros (Nafarroa). Txalet atxikia. Jardina. 2 pisu. Eraikuntza berriak.
Hernani. Eraikuntza handia. 3 logela, musika haria. 80 m2 eta 40 m2 jardinarekin. Etxe ederra. 57.000.000 pta.
Irura. 2 logelako etxebizitza. 2 bainu-gela, garajea, trastelekua eta jardina.
Ikaztegieta. 100 m2. Eguzkitsua. Garaje itxia. Egongela handiarekin.
Tolosa. Araba etorbidea. 5 logelako etxebizitza. Erabat eguzkitsua, ibaialde. Garaje marra eta trastelekua.
Tolosa. Izaskun. 2 logela, sukaldea eta gela balkoiarekin.
Legorreta. Txalet atxikia. Trastelekua, terraza. Egoera ezin hobean. Bizitzera

sartzeko. 44.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09
Tolosa. Erdialdean. Eraikuntza berriko apartamentuak. 2 logela eta 2 bainu.
Tolosa. Gorosabel kalea. 155m2ko etxebizitza, erabat berritua, dena kanpoaldera.
Tolosa. Errementari kalea. Eguzkitsua 3 logela. 30.500.000 pta.
Tolosa. Izaskun auzoa. 2 logela, 2 gela, sukaldea. 32.000.000 pta.
Tolosa. Korreo kalea. Apartamentua bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logela. 28.000.000 pta.
Tolosa. Laskurain kalea. Egoeran ezin hobean. 2 logela, egongela, sukaldea eta jangela. Sabai altuak. Etxebizitza handia eta gazteentzat. Diseinuzkoa. 45.000.000 pta.
Tolosa. Pintor Lekuona. Bizitzera sar-

tzeko, 2 logela, egongela, balkoiarekin. 29.500.000 pta.
Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igo-gailua, berogailua. 45.000.000 pta.
Tolosa. San Esteban. 90 m2-ko etxebizitza. 3 logela. berogailua, eguzkitsua. 35.000.000 pta.
Tolosa. Gudari kalea. Terraza. Berritua.
Tolosaldea. Etxebizitza berriak. 1 eta 2 logela. Garajea marrarekin eta igo-gailua. 24.125.000 pta.
Zizurkil. 3 logela dituen etxebizitza, kanpoaldera. Balkoi itxia, ganbara.
NEGOZIOAK
Ileapaindegia. Alokatzeko. 90 m2. Guztiz diseinatu. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Belautza. Pabilioia 250 m2. 32.500.000 pta.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m2-ko lokala salgai. 669 87 19 09.
Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan.
Tolosa. Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.
Tolosa. Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.
Villabona. Lokal berria, 35 m2, sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Auzitegi Gorenak dio lur horietan ezin zela eraiki

Zortzi etxebizitza eraiki zituzten nekazal ustiapenerako zuzenduriko lurretan

I. TERRADILLOS

Belauntzako Udalarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen auzian azken honen alde egin berri du Espainiako Auzitegi Gorenak. Juan Jose Otegi Gazteluko alkate ohiak nekazal ustiapenerako zuzenduriko lurretan zortzi etxebizitza eraiki zituen herri honetan.

Auzi honen jatorria 1999an aurkitzen da. Urte horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Belauntzako arau subsidiarioen aldaketa atzera bota zuen,

nekazal ustiapenerako lur horietan eraikitzea eragotziz. Belauntzako Udalak helegitea aurkeztu zuen EAeko Auzitegi Nagusian, baina honek Foru Aldundiaren aldeko erabakia hartu zuen, orain Espainiako Auzitegi Gorenak egin berri bezala.

Ezetzkoa esan arren eraiki egin ziren etxebizitzak eta 1999eko urrian Gipuzkoako EAJ-k Tolosaldeko eskualdean HBko hainbat udal hauteskidek egindakoak gogor kritikatu zituen.

BERASTEGI ▶

Musika klasikoa bihar, eskolako jolas gelan

Bihar 21:00etan musika klasikoko kontzertuaz gozatze-ko aukera izango da Berastegin. Josu Okiñena ariko da pianoan eta Rasban Suma biolontxeloa Berastegiko Udalak eta Aldin kultur elkarteak Kutxaren laguntzarekin antolaturiko ekitaldian.

IBARRA ▶

Argazkigintzan sakontzeko ikastaroa

Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean Iñigo Royo argazkilararen ardurapean argazkigintza II sakontzea tailerra antolatu dute. Lantegian izena eman nahi dutenek apirilaren 4a baino lehen egin behar dute Kultur Etxean.

IBARRA ▶

Batasunak deituriko batzarra Subegin

Gaur 19:30ean Batasunak batzar baterako deia luzatu du. Batzarra Ibarrako Subegin elkartean egingo da eta bertan eztabaidatuko den gaia honakoa izango da: apirilareko 17ko EAeko hauteskundeak eta gaur egungo egoera politikoa.

OREXA ▶

Eriz magoaren saioa bihar ikusgai ganbaran

Bihar Eriz magoak saio berezia eskainiko du Orexan. Saioa 18:00etan izango da eta udaletxeko ganbaran izango da ikusgai. Berezi ki haurrei zuzendurikoa izango da magoak eskainiko duen magia ikuskizuna.

IBARRA ▶ PRESOKAK

3 urte bete berri dira Ijurko eta Aramendi atxilotu zituztenetik

Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi eta Jon Mindegiaga Ibarrako presoan amek hitz egin dute bizi duten egoerari buruz



Mari Jose Ruiz, Nekane Urteaga eta Maria Jesus Urteaga. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Martxoaren 25ean 3 urte bete ziren Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi preso politikoak atxilotu zituztenetik, eta hori dela-eta ekitaldi bereziak egin ziren martxoaren 20an. Jon Mindegiaga atxilotu zutela 3 urte beteko dira urriaren 1ean, ETArekin kolaborazioa izatea leporatu zitzaion Ijurko eta Aramendiri; Mindegiaga, berri-ri, ez dute oraindik epaitu eta ETArekin kolaborazio izatea leporatzen diote.

Mari Jose Ruiz, Ijurkoren ama, Nekane Urteaga, Aramendiren ama eta Maria Jesus

Oiarbide, Mindegiagaren amak atxilotu gertatu zen unetik eta 3 urte hauetan nola bizi izan diren eta bizitza nola aldatu zaien kontatu dute.

Sentitzen dutena bi hitzetan ez dutela adierazi diote hiruek. «Erabateko aldaketa eragin zuen gure bizitzetan; jaiotzen egunetik etxean hazten ikusi duzun seme edo alaba batekin elkarriketa bat eduki ahal izateko 600 kilometrotik gora egin beharra nolako izan daitekeen jar zaitzete pentsatzen; edo edozein amaren kasuan, gaue-ri semea/alaba etxean ikusi arte lokartu gabe egoten den amari, une hori sekula ez iri-

PRESOKAK ▶

EIDER IJURKO

- ▶ 23 urte.
- ▶ 2002ko martxoaren 25ean espetxeratua.
- ▶ Curtis-eko (A Coruña) kartzelan dago.

EKAITZ ARAMENDI

- ▶ 25 urte.
- ▶ 2002ko martxoaren 25ean espetxeratua.
- ▶ Curtis-eko (A Coruña) kartzelan dago.

JON MINDEGIAGA

- ▶ 24 urte.
- ▶ 2002ko urriaren 1ean espetxeratua.
- ▶ Alcalá Mecco-ko (Madrid) kartzelan dago.

tea», azaltzen dute. «Lehenengo egunak izan ziren okerreren iragan genituenak, jakin bage-nekien torturatuak, umilatuak... izango zirela, eta nahiz eta azken aldi honetan ohituak gauden hitz hauek erabiltzen, ez dago deskribatzerik bakoitzaren seme edo alabarengan tokatzen denean nolako sufrimendu eta inpotentzia sentitzen den», gehitzen dute.

«Sinestu ez arren sekula ez zara egoera horretara ohi-tzen», diote eta «onartu beharra dago, une hauek, orain artekoak eta martxoaren 11koa salbuespen, bizitzaren ari garen gogorrenetakoak suertatzen ari zaizkigula», gehitzen dute egungo egoerari buruz. Bestalde, gose greban izan berri dira eta horrek dakartzan ondorioak benetan larriak izan daitezkeela eta oneoro buruan izan dituztela azaldu dute.

Hiru ama hauek duten ametsa garbia da: «Etxean nahi ditugu, baina ez soilik presoak, iheslari eta errefuxiatuak ere; horretarako, gizartearen erantzuna behar beharrezkoa da».

Hiru preso hauei duela gutxi atxilotu zituzten Maite Aranalde ibartarra eta Lizartzan bizi zen Haimar Altuna ibartarra ere gehitu behar zaizkie orain.

hilberriak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 943 65 56 95 ▶ tolosaldeko@tolosaldeko.hitzaz.com

Jose San Sebastian Aguirre
(Pakita Morillas Urdanpilletaren alarguna)

Martxoaren 29an hil zen, 92 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Haren animaren zuzendaria: Iñaki Zubeldia; seme alabak: Koro eta Angel De La Fuente, Shekun Carmen eta Koldo Arcelus; bilobak: M. Koro eta Garoa, Gorka, Kepa eta Olatz, Iñaki eta Garazi, Joseba eta Itziar; birloba: Sara; ezkon arreba: Anttoni Artola (Andres San Sebastianen alarguna); ilobak, lehengusua eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otortu bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR osteguna, arratsaldeko SEIETAN, Belauntzako SAN JOAN BATAILATZALEA paroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aidez aurretik, mila esker

Hilbidea: Plaza ebe (Belauntza).
Aldian aldiko hilbidea: Amaro, 13-2.B (Tolosa)
Oharra ▶ gorputz bella Tolosako
Funeraria Vascongada Beilatokian dago.

BELAUNTZAN, 2005eko martxoaren 31n

Jose San Sebastian Aguirre
(Pakita Morillas Urdanpilletaren alarguna)

Martxoaren 29an hil zen, 92 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

-golan bego-

Urte mardotan bizitu arren iritsi zaizu azkena gure arteki joan zerade hau da samina, hau pena egunen baten bilduko gera badegu ibarropena Jaungoikoari eskatzen gatzoz zurretaz gauzik onena betiko argiak argitu beza zure betiko atsedena

Iriarteko sendiak

BELAUNTZAN, 2005eko martxoaren 31n

LEITZA ▶ KULTURA

Pello Añorgak ipuinak kontatzen erakutsiko du

Ikastaroa hurrengo hilaren 16an izanen da

J. ASTIBIA

Ipuin kontaketa ikastaroa antolatuko du Leitzako Kultur Taldeak, apirilaren 16rako: lau orduko saioan, liburutegian egingen da, 9:00etatik 13:00etara, Pello Añorga irakasle delarik. Ipuin kontalaria da bera.

Jakitera eman dutenez, «Hiru eta bederatzir urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuinak»

landuko dituzte ikastaroan eta «guraso zein ipuin kontaketa interes duen ororentzat» omen da.

Bestalde, taldea mugatua izanen dela jakinda, izena lehenbailehen ematea komeni dela adierazi dute, horretarako eskuragarri dagoen telefonozenbaki batera deitu behar dela ohartaraziz, beti ere 17:00etatik aurrera egingez.

GUTUN@K ▶



Leitzako benetako EARI

Ikurrinaren gai honetan, ikusi dugu gaur goizean ia erlojuko ikurrina ere falta zela. Hau ere kendu dute, udaletxeok suposatzen dit.

Zuen partiduko buruari, Begoña Erraztiri, ahoa betetzen zaio «ikurrina defendatu behar da» esaten duenean, us-tez gainera «beste gauza guztien gainetik». Bere hitzak dira. Baina zuen zinegotziek herritarrek jarritako ikurrina bost aldiz kendu dute, Aralarrekoekin batera. Bost aldiz!

Ez al duzue deus ere egin behar? Herritar batzuk zere-

dozer egiten ari dira, baina zuek ez zarete inoiz azaldu deustara. Zergatik? Ados al zaudete zuen zinegotziak egiten ari direnarekin?

Horrela segitzen badugu, orain dela 25 urte bezala egongo gara. Aralarreko jendeek, ikusita dago, poltronan egoteagatik edozer gauza egiten dutela, baina bandera espainola jartzeko esaten badute, ados egonen al zarete, ere bai?

Besterik gabe, ia ikurrinaren aldeko bileretara azaltzen zareten!

Zuek ere esaten duzue, «ikurrina gurea da», bada, demostatu!

MARIA DOLORES GONZALEZ ▶ LEITZA

LEITZA ▶ KULTURA

Asketa Ttiki Kataluniara doa Els Verdums-i bisita itzultzera

Turismoa ere eginda bidenabar, etzi eskainiko dute kontzertua Igoaladan



Els Verdums-i ongietorria egin ziotenean, Asketa Ttikikoak kantari aritu ziren. Orain trukea. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gaur doa Asketa Ttiki abesbatza Igoaladara (Katalunia), hango Els Verdums-ek gaur 12 egindako bisitaren ordainetan. Bidaia azken ukituak ematen ari ziren bitartean jakindu zuten, Asketa abesbatzaren sortzaile izandako Jose Jabier Aizkorbe apaiza Iruñean zendu zela.

Kontuak kontu, Asketa Ttiki abesbatza, hainbat guraso eta

laurpabost begirale doaz oportundiko azken egun hauetarako, igandera arte, Els Verdums-eko lagunengana, haiek prestatu dieten asteburuaz gozatzera: «Zerbait badakigu, baina ezustekoak ere prestatuko zituztela ohartarazi gintuzten», zion Bautista Irazoki zuzendariak.

Behin haraino joanda, biharkoa turismo pixka bat egiteko baliatuko omen dute: Bartzelona hiria, agian Montse-

rrat eta inguruak ikusteko... Eta etzi, berriz, kantatzea egokitu-ko zaie. Dirudienez, Pazko ondoko larunbat arratsaldean, hango abesbatzek herrian plazaz plaza kantari aritzeko ohitura omen dute, eta Els Verdums-en gidaritzapean, hantxe ibiliko omen dira leitzarrak ere. Iluntzean du eskaintzekoa Asketa Ttiki, kontzertua.

Hau da jakitera eman dieten agenda. Edozein moduz, lagun berriak ikusteko gogoz doaz.

Jota-jota (J.J.) hil da

Hauxe zen atzo herrian zabaldu zen berria: *Jota-jota* edo *J. J.* modura ezagun zen Jose Jabier Aizkorbe apaiza, Iruñean zendu berria zela.

Sortzez goizuetarra, 1939koa, apaiz egin eta 1982an etorri zen Leitzaldeko eliz-barrutira. Eta etorri bazen, etorri, joan zen arte, gazteekin musikako alorrean lanari ekin zion, bera organo eta soinu jotzaile trebea izaki, besteak beste solfeoa eta tresnak jotzen ere erakutsi zien urte haietan ume eta gaztetxo ziren hainbat eta hainbat ikasleri.

Giro hartanxe sortutakoa da Asketa abesbatza: bera izan zen eragile eta sortzaile. Ume koadrila bildu eta abesbatza antolatu zuen, eta bere zuzendaritzapean ikasiz, eman zituzten lehenbiziko kontzertuak. Hori duela 23 urte.

Gaur Asketak bi talde ditu, Ttikia eta Gaztea, eta indarrez eta osasuntsu dagoen herriko kultur eragile garrantzitsu da. Hark ereindako haziari zain indartsu eta sendoak sortu zitzaizkion eta loretan eta fruituak emanez dabil han eta hemen. ◀

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea 2 (Tolosa). 943 654 610
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLASALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolasaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakume. Emakume euskaldun bat behar da adineko bi lagun zaindu eta etxeko lanetarako. Arratsaldean eta kobearrekin. Deitu, gaur, 943 117 285 zenbakira.

SALGAI

Teklatua. Roland VA7 markako teklatua saltzen da. Deitu 943 117 738 zenbakira.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 31, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aduna, Abatuz, Ajeja, Aliza, Alzu, Ameketa, Anso, Arca, Balamara, Beldarriz, Berrogo, Berro, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Itxegileta, Irua, Lizarra, Leizola, Lizartza, Orendain, Orma, Tolosa, Villabona, Zizelki
besterik: Leizola, Euzkara Batasuna

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kulturako Saila

Eusko Jaurlaritzaren Kulturako Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena

14

hotzena

09

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA ARALARREN

Guardetxe: e

Albi: ez

Pagomari: ez

Igaratza: ez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (Zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. KZgunean tutorea izango da gaur 09:00etatik 13:00etara.

Baliarrain. Bilera, txekor janaren nondik norakoak finkatzeko eta gimnasioari buruz hitz egiteko.

20:30ean, udaltxeko gizarte gelan.

Irura. Anoetako eta Irurako udalek autodefentsa ikastaroa antolatu dute.

Iruran emango dira klaseak, apirilaren 5etik ekainaren 28ra. Izena emateko epea gaur amaitzen da, Irurako eta Anoetako udaltxeetan.

Tolosa. Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira.

11:00etan meza San Frantzisko elizan hildako kintoen alde eta 14:00etan bazkaria Mendi-alde jatekxan.

Izen-ematea 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatekxan).

Tolosa. Tailerrak Gazte Topagunean: brotxeak modu ezberdinetan, komiki karterak, kamiseta pertsonalak... Kultur Etxean 16:30etik 20:30era. 1 euro.

Villabona. Apirilaren 14rako Irabxera irteera antolatu du Biltoki jubilatuek 25 eurotan. Oparia izango da. Izen-ematea, Biltokian bertan. Bestalde, urteko kuota ordain daiteke ekainaren bukaera arte.

Villabona. Aizkardi Mendi elkartearen 37. ibiladia egingo dute apirilaren 3an. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo Aizkardiren lokalera azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Anthropozooformak*, Aitor Ruiz de Eginoren eskultura erakusketa, Aranburu Jauregian apirilaren 16a bitarte: 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

Tolosa. Mikel Azpillagak 2003 eta 2004an egindako pinturak Aranburu Jauregian dira apirilaren 23a bitarte.

Tolosa. Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak Saikin tabernan, hilaren bukaera bitarte.

Tolosa. Matxin Labaien pintore tolosarrak bere lanak jarri ditu ikusgai Lanbroan.

Iritsi dira lehenak!

'HITZA' ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Aste Santuko oporretan ateratako argazkien lehiaketa hasi da; honezkero hasi dira HITZAren irakurleak argazkiak bidaltzen

SONDERBORG (DANIMARKA) ▶

Mireia Abaigar (Tolosa).

Danimarka aldean izan da Aste Santuko oporretan Mireia Abaigar tolosarra, eta, beste batzuren artean, argazki hauxe bidali digu lehiaketarako:

«Argazki hau Sonderborg deitutako Danimarkako herri batean atera dut Aste Santuan. Herrialde honetan mendi gutxi dago, altuenak 170 metroko garaiera besterik ez du. Baina horren ordainetan eguzkia jartzen denean honelako argazki politak atera daitezke, eguzkiak jarraitzen duen bidea bukaeraraino ikusten baita mendirik ezean».



ALJERIA...? ▶

Maitane Lertxundi (Tolosa).

Maitane Lertxundi tolosarrak bidalitako argazkia da honakoa. Aste Santuko oporretan ez dakigu zehatz-mehatz non izan den, baina, gure uste apalean, Maroko behar du izan berak ematen dituen azalpenengatik. Hitz bakan hauek igorri dizkigu Maitanek:

«Argazkian ikus dezakezuen argazki hau basamortuan dago, baina herri honetako oasiek izugarriko toki polit bilakatzen dute. Herrixka honen gainaldera igoz gero, urrutirantz, Aljeria ikus daiteke».

ZORION AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaltxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!